

Epaiketak

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Oroitzen dut alabari bularra ematen hasi nintzeneko garaia. Titi-buruak behar bezain irtenak ez nituela, heltzeko zailtasunak zituela, indar handiz tiratzen zuela eta horregatik zauriak nituela esan zidaten ospitalean. Ez neukala zartadurarik eta lasai egoteko. Azkenean, silikonazko txopera edo pezonerekin probatu genuen. Erizai-
nek zioten gaizki ohituko zela, titiburutik xurgatzea ez zela txoperatik xurgatzea bezalakoa, eta arazoak izango genituela gero-
ra. Eman nahiaren eta minez ematearen arteko erdibidea topatu genuen, eta, aste-
beterako, txoperarik gabe hartzen zuen bi bularretatik.

OME Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen du, gutxienez, sei hilabetez eskusiboki bularra ematea haurrei. Baina jende gutxi esaten du hasiera oso konple-
xua izan daitekeela, eta ama berriari zalan-
tzak areagotzeak ez du laguntzen. Gero pi-

su kontrolak etortzen dira. Lau hilabete-
koan, esan ziguten alaba ez zela ari hazten
jaio zenean pisatu eta neurtu zuenaren
proportzioan. Irudikatu zeinen epaitua
senti daitekeen ama, bularreko esnez soilik
elikatzen duen alaba behar adina hazten ez
dela ari iradokitzean.

Hamasei asterako amaitu zen aitaren
baimena, lanaldi murriztura itzuli zen.
Bost hilabete zituela itzuli nintzen ni, jar-
dun osora. Goizetan haur eskolara, arratsal-
dez aitarekin. Bularretik esnea ateratzeko
tresnarekin bizpahiru ordutik behin atera,
eta izotz plakatxoekin eta hozkailuarekin
aurrera eta atzera ibili nintzen, haur esko-
lan edo aitarekin hartu behar zituen bibe-
roietan bularreko esnea har zezan. Irudika-
tu erritua: mugimendu politiko batean lan
egiten dut, jardunaren gehiengo bilerez
osatzen da, eta asko luzeak dira. Ba zegoki-
danean, bularretik esnea ateratzen nuen.
Parean, konfiantza gehiago edo gutxiagoko

kideak izan nitzakeen, baina tresnaren euli
soinua familiarra bihurtu zen. Bederatzi hi-
labeterako, ez nintzen gai biharamuneko
biberoietarako adina bularretik ateratzeko.
Beraz, formula esnea eskaintzen hasi gi-
nen, eta onartu zuen. Orain, hamabost hi-
labete pasatxo ditu, eta, elkarrekin gaude-
nean, nahi duen aldiro hartzen du bularra.

Aste honetan izan da amagandiko edos-
kitzearen mundu mailako astea, abuztua-
ren 1etik 7ra. Baina guraso guztiek merezi
dute aitortza: bularra, biberoia edo edoski-
tze mistoa hautatzen dutenek; haur esko-
la, lan murrizketa, eszedentzia edo aitona-
amonen laguntza hautatzen dutenek;
egin dutena egin dutela, errudun eta epai-
tuak sentitzen diren guzti-guztiek. Bizitza-
ko une horretan zaudeten edo egon zare-
ten guztioi besarkada konplize bana, eta
une horretara heltzera zoaztenoi edo inoiz
ez zaretela helduko garbi duzuenoi, beste
horrenbeste. •

Burrun-burrun

Joxean Agirre

Azken bolada honetan Mentxu Gal-
irundar margolariak kontatu zidan
pasadizo batekin gogoratu ohi naiz
sarritan. 90 urte betetzera zihoala
autoan ibiltzea debekatu zioten eta esan zi-
danez, goizero garajera jaitsi, autoa martxan
jartzeko imintzio guztiak egin eta zegoen le-
kutik mugitu gabe baina bolanteari eragi-
nez eta martxak aldatuz, burrun-burrun,
Irun inguruko auzoetatik barrena sekulako
bueltak egiten zituen. Hori da gutxi gorabe-
hera gure urte eta gutxiko bilobak etxe-
ko egongelako lurrean kamioi batekin egiten
duena, burrun-burrun hasten denean.

Lehen, zahartzaroaz galdetzen zidatenean
nerabezaroaren antza zuela erantzuten
nuen, adin tarte alua zela, kabroia, egokitza-
pen ahalegin izugarriak eskatzen zituen.

Orain nago ez ote duen antz gehiago haur-
tzaroarekin. Ikusten ditut nire adineko bat-
zuek bizikletarekin sekulako aldapak igo-
tzen eta berehala ohartzen naiz
burrun-burrun eginez doazela, fikzio baten
barruan alegia, motor elektrikoaren bultz-
dari esker ari direlako balentria horiek buru-
tzen. Bat edo beste mugikorretik emazteare-
kin edo dena delakoarekin hitz eginez ere
ikusi izan ditut maldan gora. Gurpil aulkie-
tan dabilzanek ere, abiadura pixka bat har-
tzen dutenean, begiak erdi itxita jartzen di-
tuzte eta iruditzen zait ez ote duten amets
egiten Formula 1eko lasterketa batean edo
ihesaldi batean dabiltzala.

Neu ere sanjoanetan hasi eta taula bate-
kin sartzen naiz ia egunero itsasoan, baina
olatuaren bultzarekin zalapartaka gainean

jartzen ari naizen bitartean badakit hori fik-
zio bat dela, ume baten jolasa eta ez duela
ezer surfetik. Orain dela egun batzuk Txin-
dokira joan ginen eta estilo alpinoan igo be-
harrean Lhotsera bide berri bat irekitzen ari
ginela ematen zuen, pauso bat orain eta on-
doren beste bat. Badakit nire adinekoek ohe-
an ere balentria handiak egiten dituztela
viagrari esker. Ez dakit, ez naiz suspergarri
horietan aditua, baina hor ere zerbait posti-
zoa, gezurrezkoa ez ote dagoen iruditzen
zait.

Diferentzia handi bat dago umetako fik-
zioen eta zahartzarokoen artean: haurtzaro-
an fikzioak bizitzarako prestatzen gaitu eta
zahartzarokoak, ordea, badu ukitu triste bat,
bizitza bera ordezkatzeko, bizitzaren simula-
zio bat eskaintzen ari delako. •